

BERMEO / Hainbat gazteren narrazio lanak saritu dituzte

‘V. Bermeo Uria’ Narrazio Lehiaketaren sari banaketa egin zuten zapatuan, Nestor Basterretxea aretoan.

Maite Zabalondo

Bermeoko Joxe Miel Barandiaran Udal Liburutegiak Bermeoko ikastetxeekin batera antolatutako ‘V. Bermeo Uria’ Narrazio Lehiaketaren sari banaketa izan zen zapatuan, Nestor Basterretxea aretoan. Hainbat gazteren lanak saritu zituzten; hain zuzen, Lehen Hezkuntzako bigarren ziklotik Batxillergora arte Bermeoko ikastetxeetan dauden ikasleek parte hartu dute lehiaketan, zortzi urtetik hamazortzi urtera arteko gazteek.

Maila bakoitzetik irabazle bat eta bigarren sailkatu bat izan ziren, baina finalista guztiek jaso zuten euren diploma, Xabier Legarreta Bermeoko alkatearen eta Asier Gabantxo Kultura zinegotziaren eskutik.

Irabazleek eta bigarren sailkatuek, diplomaz gain, zenbait opari jaso zituzten; besteak beste, liburuak. Horrez gain, irabazleei herriko denda batean liburuak edota ikas materiala erosteko diru-txartel bana ere eman zieten.

Finalisten artean ere liburuak banatu zituzten, beraz, inor ez zen esku hutsik joan etxera.

Proba pasatu beharra

Sari banaketa ekitaldia berezia izan zen. Saria eskuratzeko idazle gazteek aurretik proba bat pasatu behar izan zuten. Erakustokira igotzean han zeuden bi emakumeek (Apika taldeko animatzaileak ziren) maila bakoitzeko finalista taldeari proba bat jarri eta beraiek esandakoa bete behar zuten; adibidez, denen artean istorio bat inprobisatzea.

Guztiek pasatu zuten proba, eta beraz, sariak eurentzako izan ziren.

Narrazioak irakurtzeko

Iazko irabazleen lanekin osatutako liburua duela gutxi kaleratu dute; aurtengo irabazleenak datorren urtean ikusiko du argia.

Liburua eskuratzeko aukerarik ez duenak, bermeotar gazteen narrazioak irakurtzeko aukera izango du liburutegiaren webgunean, han argitaratzen dituztenean.

Bost urte daramatzate ' Bermeo Uria ' Narrazio Lehiaketa antolatzen, ikasleen artean euskaraz irakurtzeko eta idazteko zaletasuna bultzatzeko asmoz, eta horretarako euren parte-hartzea ahalik eta handiena izan dadin ahaleginduz, Marije Bidaguren Bermeoko liburutegiko arduradunak azaldu zuenez.

Irabazleak

L. H. 2. zikloa. Mikel Unanue Allika (' Eguzki maltxurra ').
L. H. 3. zikloa. Miren Arketa Uriarte (' Bermeoko altxorra ').D. B. H. 1go zikloa. Leire Zapiain Egaña (' Ilargiaren argipean ').
D. B. H. 2. zikloa. Leire Ariztegi Zumeta (' Lamerako kolar baten ').
Batxillergoa. Nerea Lastra Begoña (' Bihurtuz ').

2. sailkatuak

L. H. 2. zikloa. Unai Etxebarria Oseguera (' Pelota Saltarina ').
L. H. 3. zikloa. Lore Barrena Lozano (' Munduko mazedoniarik gozoena ').D. B. H. 1go zikloa. Borja Abaroa Ormaza (' Maitasunezko iratzargailua ').
D. B. H. 2. zikloa. Amaia Zapiain Egaña (' Hamasei urte ').
Batxillergoa. Iñigo Uriarte Ojeda (' Ilunpeko memoriak ').